


ED GASTEIZ

Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria

7. Zka.

Gasteiz, 1993 Ekaina



Juan Arregirekin
Play off-az hizketan

LAUDIO • EKAINAK 20: etorkizuna euskaraz !



Ray-Ban®


**BETAURREKOEK EZ DIZUTE IRUDIA BAKARRIK EMATEN.
ORAIN SOINUA ERE BAI**

MultiOpticasek Ray-Ban ereduko edozer erostean irradi digital bat oparitzen ditu.

*MultiOpticasen establezimendu batera joatea besterik ez duzu;
bertan zerbitzu pertsonalizatua eta ikusmena zaintzeko teknologiarik
modernoena aurkituko dituzu.*

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean) GASTEIZ



Euskara gure kulturaren oinarria da.
Horrexegatik egunez egun aurrera
goaz euskara arabar guztion
hizkuntza izan dadin.



DIPUTACION
FORAL DE ALAVA

ARABAKO
FORU ALDUNDIA

DPTO. DE PRESIDENCIA

LEHENDAKARITZA SAILA

*Maria Elena
Dantza Eskola
ME*

Udako Ikastaroak (Uztailean)

**Euskal Jotak
Sevillanak**

**Flamenco
Castañuelak**

Izena emateko epea:

Cubo kalea, 2

Tfnoak: 13 33 52

Uztailaren 1etik 25era

13 78 46

GEU
 Gasteiz

 Gasteizko Euskaldunon
 Aldizkaria

1691 Postakutxa
GASTEIZ
Zuzendaria

Joseba Gorostiza

Erredakzio-batzordea

Iñigo Barruso

Xabier Etxaniz

Mikel Garmendia

Txema Millan

Patxi Salaberri

Kazetariak

Leire Lopez de Aberasturi

Inaxio Lopez de Arana

Ismael Diaz de Mendibil

Olatz Irizar

Publizitatea

Martin Rezola

Maketazioa

Blanka Agiriano

Alex Badillo

Argazkilariak

Lukas Etxeberria

Joseba Olalde

David Aguilar

Joseba Unzueta

Kolaboratzaileak

Agurne Aizpitarte

Asier Garro

Txipi Ormaetxea

GEU elkartearen babesarekin

5.000 Aleko Tirada

Lege-Gordailua

VI-582/92

Inprimategia

Gertu Koop. E. (Zubillaga, Onati)

 GEU GASTEIZek ez du bere gain hartzen
 bertan adierazitakoen erantzunkizunik

Haur Kantari Txapelketa

Aurten ere, kantuzaleok aukera polit bat izan dugu gure herriko eta gure hizkuntzan kantak entzuteko.

Ia hirurehun haur bildu ziren Izarran, Maiatzaren zortzian, abesteko: bertakoak eta Agurain, Kanpetzu eta Gasteiztik etorritakoak.

Giro alai eta musika maila oso aipagarria. Garbi geratu zen Arabako eskola eta ikastola batzuetan Musikak beste edozein gaik duen garrantzi berdina duela. Eta hau, beste eskola eta ikastola guztietara zabaldu beharko litza-tekeelakoan nago.

Gure herriak, betidanik maite izan du musika, Euskal Herrian oso musikazale onak izan dira eta daude, denoi gustatzen zaigu musikaren bat edo beste. Hori dela eta, zergatik ez dute gure haur guztiek musika ikasten eskolan? Ez al da «erreforma» famatu horrek eskeintzen digun oparixto eder bat? Zergatik ez da eskola guztietan musikazko irakasle bat

eskatzen? Azken hau lortuko balitz...

Baina lehiaketara bueltatuz, benetan, giro ederra, doinu politak, ahots garbiak, entzule ugari, eta kantuak dioenez «Zer gehiago behar dut nik»

Iruñeako finalera joan diren Agurain eta Olabide Ikastoletako haurrei zorionak!

Josune Barandiaran

ARABAKO HAUR KANTARIEN TXAPELKETA



Aldizkari hau dohain, debalde, banatzen da. Jaso nahi baduzu bete ohar hau eta bidali 1691 posta kutxara

GEU GASTEIZ ALDIZKARIA ETXEAN DOHAIN JASO NAHI DUT

IZENA:

DEITURAK:

KALEA: Zenb.: Pisua:

Kode postala:

HERRIA:



OIHANE PEREA

Ekaineko azterketak

I

Urri aldetik maiatz aldera ez gera joaten klasera kaletik goaz etxera eta etxetik goaz kalera klase orduak egonda ere egiten degu berbera udaran ere ez degu galtzen dibertitzeko aukera gero ekaina iritsi eta espabilatzen bagera.

II

Literatura, mate, latina filosofia, fisika pikutara joan bitez guztiak liburuekin hasita gu ito nahian hilabetea azterketekin josita. Irailerako utzi ezker hori da hori errita behar genuke labur esanik Santuren baten bisita.



Postariak ekarriak

Natura maite duzuenontzat

Natura maite duzuen guztiok animatzen zaituztet Kodes-ko monolitoak bisitatzena.

Ibilbide polit eta zoragarri bat egin daiteke Nafarroako paraje hauetatik. Monolito hauek Azuelo eta Joar herri artean daude.

Aipagarriena, handitasun izugarritzko bi harri gorrixka daudela da, zeinak, paisaia berde batez inguratutik dauden. Bi monolito hauek «Dos Hermanas» izena dute. Kondairak dienez, bi neska hauek ekaitz gogor baten ondorioz, harri bihurtu ziren.

Kodes-ko monolitoak ikustera joanez gero, landareetat zozatu ahal izango duzue, zelai eta bidesketatik igaroz.

Alboan dauden herritxoak bisitatu ditzakegu: Torralba del Rio, Azuelo, Agilar de Codes... eta nahi izanez gero Bianara, Logroñora jeitsi zaitezke edo Arabako Errioxatik bidaiatxo bat egin

Kontu handia izan behar da aldapa eta sakan handiak daudelako. Lainoa dagoenean ere arrisksua izan daitek

Baina monolito hauetaz zertxobait gehiago jakin nahi baduzue joatera gonbidatzen zaituztet. Zuen gustokoa izango delakoan naho eta hortaz aparte, hiriko kutsaduratik egun batez, alde egin ahal izango duzue.

Susana Calleja Mtz de Gereñu.
Ikaslea

OHARRA

«Postariak ekarriak» atal honetan, zuen berri jakin nahi dugu. Idatziguzu nahi duzuna kontatuz. Espazioa izango da jarriko dizugun muga bakarra. Eskutitzak, gehien jota, 20 lerrokoak izan behar dira eta bertan zure izena, abizenak eta nahi izanez gero zure lanbidea jar itzazu.



HEMEROTEKA

❑ «Ilusio handiagoz aritzen gara euskaldun berri garen bertsolariok»

Dani Kastaño
(Bigarrena Arabako Bertsolari Txapelketan)

❑ «Normalean mutilak berandu xamar hasten dira dantza egiten»

Sofia Abaitua
(«La Compañía»balet taldeko zuzendaria)

❑ «Playoff-etan oso gauza arraroak gertatu ohi dira»

Roberto Urbina
(Alaves taldeko jokalaria)

❑ «Hezkuntza musikalaren oinarriak halamoduzkoak dira»

Aitor Saez de Kortazar
(Samaniego Abesbatzaren zuzendaria)

❑ «Sexu kontuetan oso hipokritak gara»

Amaia Vazquez
(Sexologoa)

❑ «Igoera bertan behera utzi beharra tamalgarria izan zen»

Mikel Moreno
(Everesteko Arabar Espedizioko partaidea)

❑ «Joe Arlaucka ez edukitzeak hiru hagin kenduko balidate bezala sentituko nuke»

Manel Comas
(Baskonia entrenatzailea)

KIKKATZEN
KALE ANIMAZIOA



Zorionak!



▶ Pasa den hilabetean poz handia hartu genuen Everest-era joandako espedizioa gailurra lortu zuela jakitean. Alberto Cerain, Jose M. Oñate eta Jose Ramon Agirrek munduko mendirik altuena lortu zuten. Geu Gasteiz-en partetik, *zorionak guztioi!*


ELKAR
FAGOR

**SUKALDEKO
 HALTZARIAK**

Manuel Iradier, 37

Tfnoa: 25 45 88

Faxe: 27 81 93

01005 - GASTEIZ


ALBENIZ
 MOBILIARIO

 Cercas Bajas, 8
 Telefonoa eta Faxe 28 74 82
 01008 GASTEIZ

Kalea Mintzo

Selektibitatea eztabaidagai

Ekaina. Udaren ataria, oporretako garaia gure ikasleentzat. Baina hilabete honetan ez da dena jai. Beste aldean, azterketak, notak, suspentsoak eta udarako proiektuak agian bertan behera utzi behar.

Azterketen artean, selektibitatea dugu beldurgarriena. Unibertsitaterako sarrera ahalbideratu ala galeraziko duen azterketa eztabaidatua. Hona hemen Gasteiztarren eritzia gai honetaz:

1.- Zertarako balio du gaur egungo selektibitateak?

2.- Daukagun selektibitatearen orrdez zuk zer proposatu zenuke?



TERESA NUÑO. (Unibertsitateko Kimika irakaslea)

1.- Orain dagoen moduan ez da baliogarria. Nire ustez ez litzateke selektibitatearik egon behar. Selektibitatearen bidez ez da erakusten benetan bakoitzaren ezagupena. UBI, prestaketa bat da azterketa hori gaintzeko. Nire ustez, irakaslegoa edo autoritate akademikoak haien buruekin lasai egoteko bakarrik balio du. Ni benetan ez nago alde.

2.- Nire ustez arazoa azpian dago. Zergatik baloratzen dugu hainbeste gizarte honetan Unibertsitatean sartzea eta zergatik ez ditugu baloratzen beste bideak? Selektibitatearik gabeko karrera laburragoak edota irtenbide profesionalak edo bestelakoak.

MARIA VICTORIA DEL VALLE. (Gramatika irakaslea)

1.- Jakina, selektibitate frogarria beharrezkoa da, ez dudalako uste Unibertsitaterako sarrera, zuzenean eman behar denik. Nik ez dakidana da azterketa mota hau egokia den ala ez.

2.- Ez dakit zer nolako azterketa. Agian, ikastetxe bakoitzak egin behar izango luke, agian orokorra izan beharko litzateke. Hori izan liteke egokiena. Baina ez dakit nola.



SONIA DIEZ. (etxeandrea)

1.-Nere, eritziz, ikasketa unibertsitarioak egiten hasi ahal izateko nota altuagoa lortzeko egiten da. Gehienbat, filtro lana egiteko.

2.- Hasteko, ez nago selektibitatearen alde. Nik, selektibitatea egin beharrean, UBI bi ikasturtetan zatituko nuke. Horrela, oraingo UBIA ez litzateke hain gogorra izango, ikasgaiak banatzeko aukera egongo litzateke eta..

GARNICA 

FERRETERIA ETA ETXERAKO TRESNAK

Gorbea kalea 40 • Tfnoa: 24 18 73


JOSE GARCIA ALONSO. (Injinari teknikoa)

- 1.- Pentsatzen dut ikasleak duen gaitasuna kontutan izanik, Unibertsitateak eskaintzen dituen plazak betetzeko balio duela selektibitateak. Horretarako balio beharko lukeelakoan nago. Benetan balio duen ala ez, auskalo!
- 2.-Beharbada hobe litzateke ezagupenak azterketa bakar batean neurtu baino, batxilergoan zehar ikaslearen jarraipen bat egitea...

JOSE ANTONIO NAJERA. (Irakaslea)

- 1.- Uste dut beharrezkoa dela Unibertsitatean sartu baino lehen froga bat egitea. Dena den, ez dakit orain egiten dena aiprosena den ala ez.
- 2.-Ba ez dakit, ez dut ezagutzen. Lan baten bidez egin daiteke...edota batxilergoan izandako irakasleen eritziak kontutan hartuz. Agian, guzti hau selektibitatea baino objektiboagoa da.


ELI MEDINA. (ikaslea)

- 1.- Uste dut Unibertsitate sartzeko orduan, zenbait lanbide burutu ahal izateko, «numeros clausus» edota holako zeozerekin erlazionatuta dagoela. Azterketa bat da eta ez dakit nola zuzentzen duten, gainera bost urtez ikasten egon eta gero, ezagupen guztiak horretan oinarrituta egotea gaizki iruditzen zait.
- 2.- Ez dakit, plaza gehiago sortu, bestelako fakultateak, baina gauza batetarako ondo dagoena, beste batetarako gaizki dago. Imajina ezazu mundu guztia leku berera doala!

MIKEL GARRO. (Ikaslea)

- 1.- Nik uste dut ezertarako ez, aukeratzeko, ikasleak sailkatzeko nolabait, euren notaren arabera sartzeko eskubidea izateko, han edo hemen karrera bat hasteko..
- 2.- Bi egunetan urte guztian egindako lana begiratzea gaizki dago. UBItik karrerara zuzen pasatzea.


RUBEN BRAVO. (ikaslea)

- 1.-Unibertsitatean sartzeko.
- 2.-UBI bukatu ondoren norbaitek nota onak baldin baditu ez dut uste selektibitate egin beharko lukeenik. Nonbait sartzeko injinerian adibidez, matematika azterketa bat egin diezazutela, ba ondo... edo teknologikoak, fakultatean bertan. Ni ikasketa teknikoak egiten saiatuko naiz.

azkarprint

 lehen **fasprinté**

Cercas Bajas, 4

Tfnoa:

27 92 51

Fax:

25 42 10

Inprenta zure zerbitzura

- Eskutxartelak
- Fakturak
- Eranskailuak
- Gonbite txartelak
- Aldizkariak
- Txartelak

Zerbitzu bereziak:

- Paper birtziklatua eta ekologikoa
- FOTOKOPIAK KOLORETAN
- Kamisetetan estanpaketak

Bazenekien...??



... Gasteizko Enparantza Berría 1781-1791 bitartean eraiki zela?

... Hasierako arazo latzak gainditzeko, zenbait gasteiztar (Jose Gorostiza barne) W. Fernandez de la Cuestaren inguruan bildu zirela plazaren alboetako etxebizitzak izango zirenak beraien aldetik eraikitzeko konpromezuarekin?

... Gasteizko Udalak iparraldeko zatia erreserbatu zuela udaletxea kokatzeko?

... Plazaren proiektua eta lanak Justo Antonio Olagibel arkitekto gasteiztarrek zuzendu zituela?

... Orduko lau miloi t' erdi erriel inguru kostatu zuela eraikuntzak?

... Plazaren alde bakoitzeko 71 metroak 19 arkurekin apaintzen direla?

... Mateo Benigno Morazari zor zaizkiola bertako jarlekuak, pitxartzarrak, burdin landuak eta duela gutxirarte iraun duen zoladura?

... Plaza neoklasiko honetan oinarritu zirela Lizarrako Plaza Nagusia burutzeko?

... Donostiako Gipuzkoa Plazak, Bilboko Plaza Nagusiak eta beste zenbaitek ere badutela gurearen eraginik?

EUSKARAZ

- **2 eta 5 ordu** Uztailen eta Irailean
- **Urrats Guztiak**
- **Barnetegiak:** uztaila, abuztua eta Irailean
- **Gazteentzat ikastaroak** uztailen

Matrikula epea: Ekainaren 7tik 30era

GASTEIZ euskaltegia
Errege katolikoak, 15-C.
Tfnoa: 28 89 22

PINTO euskaltegia
Pintoreria 74.
Tfnoa: 28 97 80

ZALDIARAN euskaltegia
Zaldiaran Plaza, 16.
Tfnoa: 24 49 05



Xirrika

Helduentzako antzerki gaztea



Rakel Marin, Leire Goñi, Itsaso Latorre, Lorena Llana, Esther Martinez de Ilarduya eta Sallurtegi Iñurrieta dira Xirrika taldeko antzezle gazteak. Hamabost urteko neska hauek hiru urte daramate antzerki munduan buru belarri murgilduta eta beraien esanetan euskaraz antzerki lan serio bat egiten duten neska talde bat dira. Baliabide handiak ez izan arren zer egin nahi duten argi daukate elkarrizketa honetan ikusten denez.



GORETTI
ILEAPAINDEGIA

San Antonio, 29-Behea
 Tfno: 13 18 55
 01005 - GASTEIZ



MOBILIARIO kide
 apaindura

Cercas Bajas, 27 • Tfnoa: 14 41 95 • 01008 - GASTEIZ-

Hamalau urteko neska batzuen ilusioak

Noiz sortu zen Xirrika antzerki taldea?

Ikasbidea ikastolako estraeskolarretakoa plangintzaren barruan sortu zen duela hiru urte. Gu antzerki taldea zer ote zen ikusteko sartu ginen, gustatu zitzaigun eta hiru urte daramagu.

Antzezle guztiak neskak izateak arazorik suposatu du inoiz?

Orain artean egin-dako lanak neskeentzat idatzitakoak izan dira, eta neskeentzat gidoiak bilatzen jarraituko dugu. Mutilen bat behar izatekotan antzerki eskolara joko genuke dena den. Duela gutxi mutil batek taldean sartu nahi zuela esan zigun baina sei neska ikusteak izutu egin zuen. Mutilak neskak baino barnekoagoak dira.

Orain arte euskaraz lan egin duzue.

Bai, guk printzipioz euskaraz lan egin dugu. Hala ere, Gaztelarazko antzezpena eskatzen digutenean gaztelaraz egin dugu. Gure helburuak euskara kalera ateratzea eta euskararen esparrua zabaltzea dira. Jendeak euskaraz hitz egiten ohitzea lortu nahi dugu, gutxi batzuren gauza delaren ustea baztertu nahi dugu.

Antzeppenak egiteko orduan diru laguntzarik jasotzen al duzue?



da, ez dakigu noiz arte izango den.

Denbora asko ematen al duzue antzezlanak prestatzeko?

Astean bi ordu sartzen ditugu, larunbateetan normalean. Baina, orain gertatzen zaigun bezala, antzeppen bat gertu daukagunean astean zehar ere beste ordu pare bat lan egiten dugu.

✓ **Jendea harrিতuta geratzen da ikasleek egindako lantxo bat espero eta lan serio bat aurkitzen du**

✓ **Gure helburuak euskara kalera ateratzea eta euskararen esparrua zabaltzea dira.**

Zuen azken lana «Lastozko ilusioak» izan da.

Bai, Celes Duarte gure zuzendariak idatzitako lana da. Ikastetxe batean dauden bost neskaren arazoak, ilusioak eta kezkek kontatzen ditu. Oporrak hartu aurretiko azken egunean kokatzen da historia, 1936ko uztañaren 17an, hau da gerra zibilaren hasierako bezpera. Horrek bere bizitzak apurtzen ditu erabat.

Oso gai serioak hartzen dituzue horren gazteak izan arren.

Antzezlanak ikustera joan den jende asko harriturik irten da, ikasle batzuek egindako lantxoak ikustea espero zuten eta lan serio bat aurkitu zuten, ordea. Baina egia esan, hau da guk egin nahi dugun antzerkia. Haurrentzako lanen bat ere egin izan dugu baina egin behar zelako, besterik gabe, ez gustora egin genuelako.

Lehen ikastolak asko laguntzen gintuen baina gurasoen elkartetik kanpo geratu ginenetik gastuei aurre egiteko taldeko neska bakoitzak dirua jartzen du hilabetero. Horretaz gain, lan bat egitean jasotzen dugun dirua kontu batean sartzen dugu taldeko gastuak ordaintzeko.

Diruaz gain beste arazoak ere badaude, ikastolatik irtetzean lan egiteko lokalik ere ez geneukan. Orain Udaberria euskaltegiak lokal bat utzi digu baina behin behineko irtenbidea



HEGOALDE
euskaltegia.

Florida 58, behea. Tfnoa. 284196 - 01005 GASTEIZ



ARTEPAN

Artisau

Okindegia eta Goxotegia

Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ



Arabako haur kantariak: Euskal kantua loratzen

Izarrako saioan irabazleak

Txiki mailan:

Bakarlaria: Maiteder Sasieta. (Agurain)

Bikotea: Aritz eta Naian (Agurain)

Taldea: laugarren mailakoak (Agurain)

Gaztetxo mailan:

Bakarlaria: Iratze Perez de Arriluzea (Olabide)

Bikotea: Libe eta Zuriñe (Olabide)


Taldea: Mary Poppins (Olabidea)

Ikuslegoaren saria:

Mary Popins Taldea

Sari berezia:

Izarrako Eskola



Maiatzaren 8an, Arabako haur kantarien txapelketa ospatu da Izarrako Frontoian. Honen ezaugarri nabarmenena parte hartze altua izan da, orotara, 260 haur elkartu baitziren.

Izarrako irabazleak Euskal Herriko haur kantarien txapelketan aritu dira Iruñean. Bertan Aguraingo ikastolako bi haurrek bigarren saria eskuratu dute Txikien mailan.

udan euskaraz
arin-arin

IKASTARO
TRINKOAK
ETA
BARNETEGIAK



Peru kalea, 8 Tfnoa: 22 60 50 • Jose Mardones kalea, 8 Tfnoa: 26 35 40

Pasa den igandean, hilak 23, haur kantarien txapelketa ospatu zen Iruñean. Aguraingo bi haurrek, txikitxoan mailan binakako 2. saria Arabara ekartzea lortu zuten. Pedro Lopez de Larrea ikastolan ikasten duten Aritz eta Naian mutiltxoek Imanol Urbieta-ren "Txoriaren mezua" abes- tiarekin epaimahaia hunkitzea lortu zuten. Izenburuak dioen modura txori baten inguruko istorioa kontatzen du kanta honek, ama galdu duen txoritxo baten istorioa. Amarekin elkartu ondoren, Arabako basoetan bizi den txori hau, Aguraingo ikastolarako bidera abiatzen da bertako haurrekin hitz egiteko asmoz. Euskaldunak direla eta euskeraz hitzegin behar dutela gogoratzen die, bide honetan inoiz ez etsitzeko gomendioz.

Aguraingo ikastolan andereño den Arantxak azaldu duenez Iruñean haur kantarien txapelketan egondako maila

oso altua izan da. Euskal Herriko beste herrialdeetan aspaldidanik dago euskal kantuarekiko zaletasun sustraitu bat eta hori erraz igertzen da horrelako txapelketetan. Ziberoarrak adibidez, oso maila altua erakusten dute urtero.

Arabako mutil eta neska koskorren maila oraindik ere zertxobait bajuagoa den arren, gustora baina gogor lana egin dutela azpimarratu du Aguraingo ikastolako andereño honek.

Arabako euskal kantuarekiko zaletasuna urtetik urtera handituz dihoa, eta horrela erakusten du Iruñeara joan aurretik Izarran ospatutako Arabako haur kantarien txapelketak. Araba mailako haur ugari aritu ziren bertan elkarrekin kantatzen eta esperientzia ederra bilakatu zen guztiontzat. Hala ere Iruñean Euskal Herrian dagoen maila oso altua dela ikusi ahal izan zen. Dena den, binakako arloan 2. saria irabazteak euskal kantuan

lanean dabilen jendearentzat aurrera jarraitzeko bultzada atsegin bat da. Lan handia egin behar da oraindik Araban euskal kantua inguruan, baina honelako berri onak lan hau aurrera doanaren erakusgarri dira.

Aritz eta Naian Bigarren Saria eskuratu zuten 7 urteko mutikoak

Geu Gasteiz: Zer moduz Iruñean Euskal Herriko haur kantarien txapelketan?

Naian: Ondo.

Aritz: Oso ondo pasatu nuen. Oso ondo abesten zuten neska mutilak zeuden han.

G.G.: Noiz eta nola hasi zineten abesten?

N: Ikastolan, musikako klaseetan hasi nintzen kantatzen. Hala ere nere etxean ere sarritan abesten dut.

A: Egia esan ez dakit, hori bai azkenengo egunetan entsaioetan abestu dut gehienbat.

G.G.: Nahi al duzue kantatzen jarraitzea?

N: Bai, agian hurrengo urtean berriro aurkeztuko gara.

A: Ez dakit, beharbada bai.

G.G.: Zein musika gustatzen zaizue?

N: Nik nere etxean mota guztietako musika entzuten dut. Talde guztiak gustatzen zaizkit.

A: Euskal taldeak batez ere, bai Oskorriren antzekoak, baita Negu Gorriak ere.



KANTALDIA

Patxi Saiz


Ekainak 17 Beñat Etxepare antzokian arratsaldeko 8etan



Antolatzaileak:

GASTEIZKO UDALA
GEU elkarte, AEK, IKA, Bagare, Magisteritza Eskola, HABE, Hegoalde, Irale, Udaberria, Bertso Eskola, Koldo Mitxelena institutua eta Euskal Herrian Euskaraz

«NANDUS» txirrindulari nekagaitzarekin mintzo



Lau urte eta erdi dira Nandusek Houstondik (Texas) Buenos Aireseraino bidaia burutu zuela. Txangoak iraun zuen 418 egunetan 20.000 km. egin zituen. Horretarako ibilgailu bakarra erabili zuen: bizikleta. Orain Nandus dugu berriro albistegai «*largia lagun beti hegoalderantz*» izeneko liburu idatzi berri baitu. Ameriketarako bidaia horretan bizi izandakoak zehaztasun osoz agertzen dizkigu. Ez da bidaai liburu, berak ezaguturiko lurraldeei buruzko xehetasun geografiko eta historiko ugarienez horniturik badago ere. Horiek ez ezik, Nandusek Ameriketara izan zituen bizipenek, hausnarketek eta denetariko iruzkinak hartzen dute liburuaren hein handi bat. Bestalde, aipatzekoak dira ere idazlearen sentiberatasun sakona eta hango egoera sozio-politikoarekiko ikuspuntu kritikoa.

 **viajes**
Baskotour

Zure neurriko bidaiak !

Independentzia, 34 • Tfnoak: 26 84 00 - 26 84 11 • GASTEIZ

BOISE - IDAHO / ELKO - NEVADA

30. Euskal Jaialdi Nazionala

1993.eko Ekainaren 23 eta 25etik uztailaren 17ra

Boise-ra - 101.000 ptza

Elko-ra - 105.000 ptza

Hotela lortzea ere posiblea da

Datorren urteko udaberrian Ameriketara abiatuko da berriro

Nandusek datorren urtean hartuko du berriro Ameriketarako bidea, duela lau urte eta erdiko bidaiari gaina ezarri nahirik. Guk guzti horren berri zabalagoa jakin nahi izan dugu; hona hemen gure jakinminaren fruitua.

Hi zer haiz gehiago txirrindularia ala abenturazalea?

Biak. Bizikleta gustatzen zaidak eta abentura ere bai. Ni leku batetik beste batera abiatzen naizenean, bi toki horiek ez ezik, bien arteko tartea ezagutu nahi izaten diat. Horretarako sekulako aukerak ematen dizkik bizikletak. Gainera, erabateko askatasunez bidaiatzea ere ahalbideratzen dik. Ameriketari ikasi nian hori. Eta abenturazalea... hori ere izan banauk, dudarik ez.

Nola sortu zen higan horrelako bidaiak egiteko gogo?

Ni hasi ninduan bizikletaz ibiltzen nire lagunarteak bakoitzak bana erostea erabaki zuelako. Garai horretan nik ez nekian bizikletaz ibiltzen. Gerora ikasi nian. Handik lasterrera lagun batzuek Iparraldera joan ginduan bizikletaz. Horrela hasi ninduan bizikleta eta abenturaren inguruko mobida honetan.

Zer behar da horrelako abenturak abian jartzeko?

Gauza guztien gainera gogo, dudarik gabe. Indarra ere oso garrantzitsua duk baina ez fisikoa, norbere barrukoa baizik. Dirua ere

egundoko arazoa izaten duk. Nik hori sentitu nian aurreko bidaiari.

Zeintzu bidaia egin dituk orain arte?

Leku asko ezagutu diat bizikletari esker, besteak beste, Iparraldea, Britainia, Portugal, Galizia eta Leon aldea ere. Hauez landa, inguruko bazterrak ere korritu diazkiat. Andalu-



zia ere egona nauk azkenengo bolada honetan. Baina, dudarik gabe, Ameriketarako bidaia izan huan luzeena.

Zergatik idatzi duk «Ilargia lagun beti hegoalderantz» liburua?

Hasieran ez nian gogorik idazteko han dexente idatzi banian ere. Ameriketari bi izaten hituan egunero idaztera bultzatu ninduten arrazoiak: batetik, euskararekiko nuen lokarria gorde nahia eta bestetik, egunero ikusi edo pentsatzen nuena nonbait isladatu beharra. Handik itzuli eta denbora dexentera Donapaleuko (Behe Nafarroa) frantsizkotarren komentura joan eta bertan idatzi nian liburua. Horrelako gauza bat idazteko egundoko lasaitasuna eta giro berezia behar duk eta hangoa, egia esateko, ezinhobea duk horretarako. Idazle batzuk ere estilo aldetiko sekulako laguntza eman zidatek. Hori ere eskertu behar diat.

Noiz egin huen Ameriketarako bidaia hori eta zergatik?

Ameriketari 15 hilabete egin nizekian, 1987ko urritik 1988ko abendura arte hain zuzen. Guztira, 418 egun. Europatik kanpo zegoen beste bizimodu bat ezagutu nahi nian nik. Bestalde, hara joateak neure burua ezagutzeko parada eskeiniko zidalakoan nengoan. Halaxe izan zen. Horretaz aparte, nire eguneroko bizimodutik ateratzeko gogo ere sentitzen nian. Nahiz eta gustora egon euskararen mundu honetan, norberak beste gauza batzuk ere behar izaten dizkik batzuetan.

HADE EUSKALTEGIA

Elvira Zulueta, 4 (Prado parkearen ondoan) • Tfnoa: 23 09 44 GASTEIZ

zure euskal LIBURUDENDA

Plaza Berria, 14
Virgen Blanca, 1
Tfnoa: 23 16 79 GASTEIZ

berrikoia

Orain Ameriketara berriro joango bahintz zer espero huke bertan topatzea?


Lehenik esan behar diat seguruenik datorren urteko udaberrian bueltatuko naizela. Amerika osoa egin nahi diat oraingoan, Canadian hasi eta Tierra de Fuegoraino iritsi.

Egia esanda, handik itzuli nintzenetik nire indar guztiak horretara bideratu dizkiat. Galderari atxekiz, ez zekiat hor gauzak aldatu ote diren eta, hango egoera lehengoaren ondoan ezberdina izan arren, Amerikak oraindik ere gordetzen dik bere xarma eta ez diat uste inoiz galduko duenik. Ni aldatu naizela, seguru zekiat, bestalde.

Zeintzuk dira hango eta hemengo gizartearen arteko desberdintasunak?

Badituk eta asko, gainera. Nire iritziz, azpimarragarriena naturaltasuna duk. Horiek oso naturalak dituk. Ez dituk ibiltzen hemengo trikimailuekin. Hemen erabat sartuta gaudek kontsumismoaren gurpil horretan. Egia esan, konpetibitatearen kontu hori ere sartu zigutek oso ondo. Hemen nahiko matxakatuta gaudek. Bizi gaituk hemen baina benetan ez gaituk bizi. Gutako bakoitzak nahiko likek hemendik alde egin, hobeto bizi bere buruarekin. Bi aldeak ezagututa, nik hangoarekin gelditzen nauk, dudarik gabe. Halere, ni ez nindukek han geldituko bizitzen. Baina, hona bueltatuta, gauzak oso gaizki ikusten dizkiat. Ni ez negok gustora hemen. Euskal Herria bere nortasuna galtzen ari duk.

Esan liteke hirea Amerikak egiteko ere alternatibo bat dela, alegia, aberastasun ekonomikoa barik pertsonala lortu duala bertan?



Fernando Presa
«Nandus»

Bai, dudarik gabe. Ameriketarako bidaiak izugarriko aberastasun pertsonala eragin zidak. Bigarren bidaiari begira, beldur nauk neure burua oso

ondo ezagutzen dudalako eta, ondorioz, badakidalako zeintzu diren nire alde onak eta txarrak. Bestaldetik, bizitza bizi nahi dudalako bueltatu nahi diat hara.

UDABERRIA

elkartea


- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguay, 9 • Tfnoa: 24 49 65
Abendaño 48 • Tfnoa: 22 63 12
GASTEIZ

ardatz itzulpen eta euskara zerbitzuak

Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

ARABA EUSKARAZ



EUSKARA SALTSAN. Araba Euskaraz honetako bideo-klipa saltsan murgildu da. Kirolariak, aktoreak, eta ikastolako neska-mutikoeek parte hartu dute bertan.

etorkizuna euskaraz!

LAUDIO - EKAINAK 20



Araba euskalduna
orain zenbat urte
(ziurtatu dute)
orain lana daukagu
bost menderen truke.

Hamaseigarrenean
Gasteizek galera
(gutxi gora behera)
orain euskaldun
gehio
urtetik urtera.

Hamazortzigarrena
Araba euskaldun
(erdia erdaldun)
orain historiari
kosk egin daiogun.

Hemeretzigarrena
muga da Laudio
(esanez adio)
urte asko ez dela
berriz heldu dio

Hogeitabatgarrena
zer izango gare
(euskararen jabe)
Arabak esango du
Arabaren bagare.

Euskararik gabe
Arabaren zer gare?
Euskararen jabe
Arabaren bagare

Etorkizuna euskaraz
dudarikan gabe
euskararen jabe
Arabak esango du
Arabaren bagare



EGAN, TAPIA ETA LETURIA BAND, ERRAMUN MARTIKORENA, IÑAKI PERURENA, KUBUBILTZO

PILAZOAK, HAUR JOLASAK, BARRAKAK, HERRI BAZKARIA,
BERTSOLARIAK, LIBURU AZOKA, XAKEA, DANTZA AGERRALDIA, HERRI
KIROLAK, ERAKUSKETAK, BASERRITARREN AZOKA, ABESBATAK,
ROKODROMOA, PILOTA PARTIDUAK, MUSIKA BANDA, TXARANGAK,
TRIKITIXAK, GAITEROAK, ERRALDOIAK,...





NI
 SUTAUSTEGI
 NAIZ,
 ZU,
 ZERGATIK EZ?.



ADURTZAKO EUSKARA TALDEA

Aurtengo urtarrilan sortu da bere helbururik nagusia euskararen alde lan egitea izanik. Euskararen arloan 15 urtez ihardun ondoren duela bi urte desagertu zen Adurtzako Gau Eskolak utzitako hutsunea betetzera dator Adurtzako Euskara talde hau.

Astearteetan biltzen dira, Adurtzako gizarte etxean, arratseko 8 t'erdietan.

«*Oso animatuta gaude aurrera egiteko*», diosku «**Lanik gabe euskarak ez du gerorik**» leloa buruan dutela dagoeneko hainbat ekintza burutu duen taldeko partaide batek, aurrerantzean gauza gehiago egingo dutela gaineratuz. Jarraian, Adurtzako auzokide guztiei dei egiten diete «*gurekin auzoan euskarari behar bezalako bide bat ireki diezaiozun*». **Aurrera, bada, Adurtzatarrak!**



GEU ELKARTEA

Talde Eragile batek lehenbiziko pausak eman ondoren, GEU ELKARTEAK bere Batzar Eratzailea burutu berri du. Lehenbiziko urrats hau eman ondoren, lanari lotuko zaio. Zalantzarik gabe, laster izango dugu honen berri!



Fernando Presa «Nandus»



TXALAPARTA

ARGITALETXEA
 APDO.78 31300-Tafalla
 Nafarroa
 Tfnoa. (948) 70 32 77
 Fax (948) 75 50 12

Bertso-saioa

Eusebio Osaren
 omenez


Ekainak 24,
 Arratsaldeko 7,30etan
 Villa Suson

Bertsolariak:

- Zigor Enbeita
- Dani Kastaño
- Juanjo Respaldiza
- Jon Enbeita
- Millan Telleria
- Kepa Intxausti

Antolatzailea:
 Gasteizko Bertsolari
 Eskola


LIBURUAK



MITOS Y REALIDADES DEL BILINGÜISMO EN LA EDUCACION

Egilea: askoren artean.
Magisteritza eskola EHU
184 orrialde

Gaurregun, elebitasuna irakas-kuntz arlokoak ezezik gizarte-aren sektore askoren kezka dugu. Liburu honetan, mintzaira eta hizkuntzaren hainbat arazo orokor argitzeaz gain, egoera aztertu eta Euskal Herrian irakas-kuntza elebidunaren etorkizunaz hainbat hausnarketa egiten zaigu.



PANDERORAKO METODOA

Egileak: Ritxar Cuevas / Oskar Mtz de Gereñu
Gasteizko Trikitixa Eskola
70 orrialde

Trikitixak azken urteotan eduki duen gorakada ikusirik beharrekoa zen pandero metodo bat prestatu eta kaleratzea. Ikasi nahi duen edonorentzat baliagarria, gai guztiak modurik sinpleenean adierazita. Liburu honen helburua: beti ere laguntza handia izan arren irakaslea ezinbestekoa ez izatea.

HONTZA

Gazte-musika

Bob Dylan: erantzuna, uztailaren 2an Gasteizen

Bob Dylan-ek, Robert Zimmermen jatorrizko izena, duela 52 urte jaioa, merkatari judutar baten semea eta lanbidez musikalaria, hurrengo Uztailak 2an egingo dio bisita gure hiririari. Pertsonaia eztabaidatua, maitatua eta batzutan gorrotatua ere, oraindio bizirik eta zutik dirau. XX. mende honen benetazko musikaren legenda.

Urrun ditugu 60 hamarkadaren egun haiek, egunak non bere herriko eta munduko gazte desilusionatuen sinboloa genuen. «Bere belaunaldikoenengan, eragin sakonagoa sortzen du Dylanek politikari guztiak baino», argitaratu zuen New York Times egunkariak. Gertuago baina, bere azken lana, «Good as I been to you», beharbada moda akustikoa eta errebisionista dela bide, aspalditik gertatzen ez zen bezala, bere iraganaldirik zaharreneira hurbiltzen da.

Maiz bertsionatua, berriki ohoretua, batek baino gehiagok hunkipena eta agian nolabaiteko gozotasuna berreskuratuko du egilearen ahotsean hilezin bihurtu diren «Blowin in the wind», «Like a Rolling Stone», «Knockin`on heavens door», «Romance in Durango», «Mr. Tamborine man», edota «The times they are a changing» abestiak entzuten dituenen. Urteek aurrera egiten dute, baina akaso rockalariak ez dute zahartzeko eskubiderik?

Bere azken zuzeneko agerraldiek era ezberdineko kritikak jaso dituzte: batzuk, «rockalari zaharrak ez dira sekula hilko» esaldi ezaguna azalduz eta berpiztuz, beste batzuk, erromantizismoari uko eginez, defraudagarri izan dela baieztatzen duten bitartean. Nori kasu egin? Uztailaren 2an, mendizorroztako haizean...erantzuna.

Ahantz ditzagun eztabaidak, bere



konbertimendu eta birmoldaketak, mistizismoa eta profeta sentimendua. Laga dezagun bere «legenda» Gasteiztik paseatzen.

Ahantz dezagun bere adina, gogora ekar ditzagun Rock historiaren hainbat une berezi, eta utz dezagun Dylanen beraren ahots latzak gure herria inbaditu dezan, seguru asko, oraindik asko irakatsiko baitigu. Egon ziur, ez izan zalantzarik!

Joxemari/Txabi Arnal Gil

zalu
FOTOKOPIAK
Berehalaxe!!
Prado 20

Tfnoa: 945-288248 • Faxe: 945-253291

KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
MARRAZKIAK



MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20

beniz
liburudenda

Benito Ginea, 2 • Tfnoa: 25 75 14
GASTEIZ

hAurRAK

Ba al dakizu...?

1- Ba al dakizu Napoleonek zer borroka famatua galdu zuen?

- a-Trafalgar
- b-Waterloo
- d-Stalingrado

2- Ba al dakizu nork idatzi zuen *Aliceren abenturak lurralde miresgarriak*?

- a-Lewis Carroll
- b-Mark Twain
- d-Manu Lopez

3- Ba al dakizu zer asmatu zuen Nobelek?

- a-Angindarra
- b-Lehiaketa bat
- d-Dinamita

4- Ba al dakizu zein kolore ateratzen gorria eta horia nahastuz?

- a-Laranja
- b-beltza
- d-berdea.

5- Ba al dakizu nor izan zen Elhuyar?

- a-lherlari bat
- b-Musikalari bat
- d-Jauntxo bat.

6- Ba al dakizu nork erabili zuen lehen aldiz anestesia operazioetan?

- a-optikari batek
- b-zirujari batek
- d-haginlari batek

7- Ba al dakizu nongoa zen Pablo Sarasate biolinjolea?

- a-lurxakoa
- b-Azpeitakoa
- d-Aramaiakoa

8- Ba al dakizu zenbat lapur hil zituen Ali Babaren neska-meak?

- a-39
- b-40
- d-41

(Erantzunak: 1-b, 2-a, 3-d, 4-a, 5-a, 6-d, 7-a, 8-a)

den-dan
haltzariak

Gerardo Armesto. 2 • Tfnoa: 24 38 49
01008 GASTEIZ

ditare

MIHISEDENDA

UME ETA EMAKUMEENTZAKO
LENTZERIA ETA BARRUKO ARROPAK

Cruz Blanca, 13 • GASTEIZ

hAurRAk

Liburua


Antzinako Egipton Barrena

Alkairo inguruan, Gizeh-en, daude hiru piramide famatuena: Keops, Kefren eta Mikerinos faraoienak, hain zuzen. Antzinetako zazpi mirarietan denboran zehar suntsitu ez den bakarra da. Bere 135 metroko altuerarekin Keopsena da handiena. Bere aldeak lau puntu kardinaletara doi-doi orientaturik daude. Bi miloi harri-bloke dituela kalkulatu da, bakoitzak bi tona t'ardi dituelarik. Blokeak elkarrekin hain ongi parekatu daudenez, biren artean bizarrak mozteko xafla ere ez dago sartzerik.

Piramidearen hormak karariz estalita zeuden. Gainazala ez zeukaten gaur egun bezala; oso laun eta leun

baizik. Gainerako estaldura kendu egin zioten Erdi Aroan eta Alkairoko etxeak egiteko erabili zen.

Lehenbizi lurpeko hilobi-ganbara egin zuten, baina ondoren iritziz aldatu eta piramidearen gorputzean beste bi hilobi-ganbara elkarren gainean egin zituzten. Arkitektura aldetik hori berebiziko lorpena izan zen. Ganbara hauetako batean agertu zen faraoiaren sarkofagoa hutsik. Ia piramide guztiak faraoien garian bortxatu zituzten, baina hala eta guztiz ere Piramide Handian ustegabe ugari izan da. Oraindik ere objektuak topatzen dituzte eta herrialde askotako arkeologoak bila ari dira, hutsune eta pasabide gehiago aurkituko dutelakoan.



**ANTZINAKO
EGIPTON
BARRENA**



**Oinarrizko
liburutegia.**

Bizpahiru urte dira Gaiak argitartetxea hasi zela "Oinarrizko liburutegia" izeneko sail hau kaleratzen. Ez da literatura, baina lan txukuna eta interesgarria irudi zaigunez orrialde honetarako ekarri dugu.

Sail honetan gai ezberdinak ikutu dira (arrazismoa, sorginak, gazteak eta sexualitatea, Islama, e.a.) orain arte hamabi liburu plazaratu. Liburu bakoitzak gai horri buruzko oinarrizko informazioa ematen du. Esaterako, antzinako Egiptori buruzko liburuan bertako jainkoei buruz, Nilo ibaiari buruz, faraoiak, piramideak eta antzeko gai buruzko informazioa agertzen zaigu. Era erraz eta sinplean idatzirik, ilustrazio eta argazki ugari lagundurik, kontsulta liburu egokia dugu sail honetako edozein.

axular

LIBURUDENDA

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ



Hargailuak

Opariak

Rioja 22 • Tfnoa: 27 47 51
GASTEIZ

KIROLAK



Aupa Alaves, aurten bai!



Alavesek ez du zorte handirik izan igoera fasearen zozketan. San Andreu 2. B mailako areriorik arriskutsuenetariko bat da, eta iaz ez zen igo, epaile txar bat tartetik aurkitu zuelako. Honen ondorioz, lehen zurrumuruak hasi dira dagoeneko, honela, batzuek diotenez aurtengoan San Andreu tratu "berezia" jasoko du. Dena den hauek ez dira ahoz aho dabiltzan txutxu-mutxu bakarrak, Alaveseko Urbina jokalariai beste azpikeri bat plazaratu bait du, doping-a hain zuzen.

Bere hitzetan, zenbait jokalaria susmo-pean daude, "zelaian zezenak dirudite" gaineratzen du.

Batek baino gehiago pentsatuko du Alaves igoko ez den beldurrez aitzaki-maitzaki ari garela, baina igoera fase batetan hamaika bat gauza arraro gertatzen dira eta zorte pittin bat ere beharrezkoa da. Alaveseko zuzendaritzak bere eskuetan zegoen guztia jarri du mahai gainean. Aurtengo

Lerro hauek irakurtzen dituzun bitartean, Alaves igoera fasearen baitan egongo da sartuta. Ordurako «Alea jacta est» (zortea jadanik botata egongo da). Aurten Alavesek hirugarren aldiz igoera faseari ekiten dio eta honetan San Andreu, Toledo eta Real Jaen dira bere etsaiak. Guzti honi buruz hitz egiteko, Juan Arregi, Alaveseko presidentea, gurekin dugu kirol txoko honetako hurrengo orrialdeetan.

aurrekontua 190 miloitara igo eta talde ona eratu dute. Mendizorrotzan jokalariai teknikoak eta indartsuak elkartu dira. Gelo, Jaume, Frank eta Serrano etorberriek Portela, Josu Ugarte, Urbina eta besteekin batera barruan daukaten onena utzi beharko dute zelai gainean.

Honetaz ziur gaude, horregatik datorren urtean bigarren mailako onenekin borrokatzen ari izango direlako itxaropena daukagu.

Muluma
MASAIA - QUIROMASAIA
Kote Zubizarreta

Olagibel, 20 • Telefonoa 25 92 06

**Cervecería
Alemana**

SALTXITXAK
KAZOLATXOAK
SANDWICHAK

Gerardo Armesto, 3 • (Gasteiz etorbidearen ondoan) Tfnoa: 13 29 88 • GASTEIZ



Juan Arregi:

«Txikitatik izan naiz Alaveszalea»

Juan Arregi Aretxabaletako baserri batetan (Gipuzkoa) jaio zen orain 85 urte. Bizitzaren joan-etorriek Gasteizeraino ekarri zuten 40ko hamarkadan, une hartan Araba lantegi berriak martxan jartzeko oso leku egokia bait zen. Alaveseko grina ordea, txikitatik eraman du soinean eta egun, 85 urte baditu ere, Alaveseko presidentek izaten jarraitzen du. Alaveszaleek asko maite dute Juan Arregi eta berak bere ametsa bete arte, ez du etsiko, Alaves lehen mailan ikustea alegia.

GEU GASTEIZ: Juan, zu ezerezetik etorritako enpresaria zara, ezta?

JUAN ARREGI: Bai, hala da. Enpresal munduan hasi nintzen 23 urte nituela. Nire lehen kapitala 1500 pezetatakoa izan zen, noski pezeta haiek banan banan aurreztu nituen je, je... Ordundik 20 bat lantegi sortu ditut, garrantzitsuenak, Forjas Alavesas, Arregi, Acesa, Esmaltaciones San Ignacio... Urteak aurrera joan ahala, batzu utzi ditut, baina oraindik hiru lantegitako presidentea naiz. Inoiz ez dut grebarik izan, eta langile eta pertsona ona izan naizela uste dut.

G.G.: Gipuzkoarra eta Alaveszalea. Hau ez da gauza arrunta...

J.A.: Txikitatik izan naiz Alaveszalea. Mutil koskorra nintzenean, Aretxabaletatik txirringaz etortzen nintzen lauzpabost lagunekin Alaves ikustera. Orduan Quincoces zegoen taldean eta

sarrerak pezeta bat balio zuen. Itzultzean Ullibarri Ganboan arkume oso bat jaten genuen, izugarrizko gose izaten ginen eta.

G.G.: Mendizorrotzako zelaia Juan Arregi deitu beharko litzateke?

J.A.: Ez. Egia da nire agindupean tribunak eraiki zirela, baina Arabako Diputazioak eta Gasteizko Udalak asko lagundu ninduten nire garapenean, eta nolabait eskertu nahi nien. Anonimatuari egotea nahiago dut. 85 urterekin nire sasoi amaitu dela uste dut, hala ere ezin naiz geldirik egon. Ez daukat ezta minutu bat libre ere.

✓ «Inoiz ez dut grebarik izan»



AZOKA

deportivos

Zure kirol- oinetakoak

Gorbea 27 tfnoa: 24 22 05
Ariznabarra 17 tfnoa: 14 71 33

GASTEIZ

URTEGI-ALDE

SAGARDOTEGIA

Urrunaga(Araba) Tfnoa: 45 50 67

G.G.: Egunero Armentiarra igotzen jarraitzen duzu?

J.A.: Bai. Saindutegiraino joatea asko gustatzen zait.

G.G.: Zure lehen taldea Alaves da, baina honen ostean zein da zure talderik gogokoena?

J.A.: Talde euskaldunak. Igotzen bagara, Athletic, Erreal eta Osasunako presidentek ospatzera etorriko direla zin egin didate. Asko maite naute.

✓

«Aretxabaletatik txirringaz etortzen nintzen Gasteizera»

G.G.: Orain minutu batzu igoera fasearen zozketa burutu da Madrilén. Zortetik egon al da?

J.A.: Ezin gara kexatu. Seguraski zailena San Andreu izango da.


Taldeko mutilei partidu guztiak ikusiko ditudala zin egin diet. Beraz, Jaen, Toledo eta Bartzelonara joatea tokatu zait aurten. Lehenengo bi norgehiagokak irabazten baditugu, %50a egingo edukiko dugu.

Hau izan da beraz, Juan Arregirekin izan dugun elkarrizketa. Orain dela zazpi urte, Alaves desagertzeaz egon zen. Mendizorrotzako bulegoak zorrez beterik zeuden, Juan Arregik zerotik hasi behar izan zuen berriz (baloiak eta kamisetak erosi, jokalariai ekarri...). Berak taldea txukun utzi zuen, baina itzultzerakoan ez

zegoen ezer. Aitona jator honentzat saririk onena, zalantzarik gabe, datorren Ekainak 27an San Andreu-ren zelaiko aldageletan bere "mutil"-ekin igoera ospatzea izango litzateke.

▼

Alavesak, aukera onak ditu. Emaitzak ikusteko daude.



GILTZA ARBA
ZERRAILDEGIA

LARRIUNETARAKO ZERBITZUAK 24 ORDUZ
zerrailak, giltzak, atek kotxeak...

Tfnoa: 945-26 57 29 Jose Mardones, 7
01004 GASTEIZ

MUGA

MENDIA, ESKALADA ETA BIDAIETARAKO MATERIALEA.
LIBURUDENDA ESPEZIALIZATUA.

Plaza Nueva, 3
Tfnoa: 14 63 25 • 23 05 57
GASTEIZ

Noresta

Paulino Caballero, 41
Tfnoa: 15 14 26
IRUÑA

- 4** KONTZERTUA: «Zintzarri» ume-
abesbatza, Santa Maria eskolania
eta Cantinela abesbatza. 7,30etan
San Cristobal Elizan
KONTZERTUA: Euskadiko Orkestra
Sinfonikoa. 7,45etan Principal
Antzokian.
- 5** DANTZA: Folklore Akademia.
arratsaldeko 7,30etan Enparantza
Berrian.
KANTALDIA: Luis Eduardo Aute -
«SLOWLY». Gaueko 10,30etan
Principal Antzokian.
- 9** KONTZERTUA: Biolina eta Pianoa.
7etan Principal Antzokian.
- 1 2** DANTZA PLAZAN: Folklore Akademia.
Enparantza Berrian 7,30etan.
DANTZA: «Sofia Abaitua» akademia.
Principal Antzokian, 8etan.
- 1 3** «ARABAKO DANTZAK» diskoaren
aurkezpena: Principal Antzokian
goizeko 12etan.
KONTZERTUA: Udal Banda.
Judimendiko Parkean eguerdiko ordu
batean.
- 1 8** KONTZERTUA: Kultura musikala.
Principal Antzokian, arratsaldeko
8etan.

- 1 7** KANTALDIA: Patxi sanz. Beñat
Etxepare Antzokian, 8etan.
SOLASDIA: Villausoko tertuliak: «Gau
luzea» VillaSuso Jauregian
arratsaldeko 8etan.
- 1 8** KONTZERTUA: Euskadiko orkestra
sinfonikoa. Principal Antzokian
7,45etan.
- 1 9** DANTZA PLAZAN: Folklore Akademia.
Enparantza Berrian 7,30etan
FLAMENCO I IHARDUNALDIAK: Principal
Antzokian, gaueko 10,30etan
- 2 4** BERTSO -SAIOA: Arratsaldeko 7,30etan
Villa Suson
- 2 5** KONTZERTUA: «Jesus Guridi» Musika
eskolako ikasleak. Beñat Etxepare
Aretoan, arratsaldeko 8etan.
- 2 6** DANTZA PLAZAN: Folklore Akademia.
Enparantza Berrian 7,30etan
FLAMENCO I IHARDUNALDIAK: Principal
Antzokian, gaueko 10,30etan
- 2 7** DESFILEA: SET Moda-ikuskizina
Principal Antzokian 8etan
- 3 0** KONTZERTUA: Kultura Musikala
Principal Antzokian, 8etan.

Antzerkia

Principal Antzokian



«La Nariz» (umeentzakoa)
La Farandula antzerki-taldea.

Igandea, 6 arratsaldeko
6,30etan

«Carne de cañon»
Catalana de Gags.taldea

Osteguna 10 eta ostirala 11,
9etan

«Yerma»
Teatro del Alba antzerki taldea.

Asteartea 15 eta asteazkena
16, 9etan

«Monsieur Klebs eta Rosalie»
Topo taldea

Asteartea 22 (erderaz) eta
asteazkena 23 (euskaraz),

«Las criadas»
Arte Eskenikoentailerra

Osteguna 24, 8,30etan

ARABAKO
ESPERANTO
ELKARTEA



Zapateria, 29 • Tfnoa: 22 05 70

ZAPATEGIA - ARTISAUTZA




Herreria, 86 • GASTEIZ

ALISAS
TABERNA

EZ DAGO
PINTXORIK

KUTXI • GASTEIZ




Agenda
**Dantzatu nahi,
ala...?**

EKAINAREN 20 ETA 27AN ETA UZTAILAREN 4AN, igande goizetan «dantzatu nahi ala...?» susperketa kanpaina antolatuta du Arianta taldeak. Edonork har dezake parte, banaka, binaka, taldeka, multzoka... Eguerditik arratsaldeko ordubiak arte Enparantza Berria edota Foru Plazan lurralde ezberdinetan bildutako dantzak.


ARIANTA Aisi Tarteko Elkarte
«Pop-rock»aren gurpilean

OSTIRALETAN,
gaueko 10etan,
gure auzoetan
kontzertuak
Gasteizko pop
eta rock taldeen
eskutik.

Ekainan:

4, Ostirala: Arana
11, Ostirala: Aranbizkarra
18, Ostirala: Judimendi
25, Ostirala: Arriaga

«HIRU HAUNDIAK» ZAZPIGARREN IBILALDIA
Gorbeia - Anboto - Aizkorri


1993 Ekainak 5 Larunbata

Antolatzailea:
MANUEL IRADIER
Txangolari Elkarte

Euskarazko mezak
Larunbatetan:

6,30etan El Pilar Elizan
7,30etan Erreparadoretan

Igandeetan:

11etan Estibalitzen
(ele bietan)
11.30etan Jesus Langile
Elizan
12etan Erreparadoretan

ERAKUSKETAK


Olagibel Aretoan (Enparantza Berria) Ekainaren 6a arte. KIROL ARGAZKIAK. II. erakusketa. 8tik 12ra. Hirugarren adinekoen klub eta egoitzak. 15tik 27ra «JUANJO SANPEDRO» ARTE-TAILERRA

Caruso Kafetegian (Enrike Eguren 9) LAZARO LAZARO. Oleoak

Kultur Etxean (Florida) 12ra arte, LUR kolektiboaren pintura-erakusketa. 14tik 26ra Hirugarren adinekoentzako ikasgelek antolariko keramika, pintura, taracea eta ikono erakusketa. 28tik Uztailaren 12ra arte «Ume marrazkilariak pakearen alde»

Cordon Etxean. 4tik 20ra Natura arloko eskularen eskola arteko lehiaketa

CM2-en (Araba Jauregia, Herreria 24) Ekainaren 5a arte. PEDRO GALVAN. Teknika mistoa. 11tik Uztailaren 13a arte. IDIOA ELOSEGI. Eskultura

Trayecto Galerian (Ramiro de Maeztu 10). Ekainaren 19a arte IÑAKI CERRAJERIA. «Señuelos» Pintura.

Amarika Aretoan, JUNCAL BALLESTIN. Erakusketa.

Luis de Ajuria Aretoan (General Alava 7). 6a arte RAFAEL LAFUENTE. Pintura abstraktoa eta geometrikoa. 8tik aurrera. ROSA GUERRERO. Pintura.

San Prudentzio Aretoan (San Prudentzio 30). 18a arte. SAENZ DE TEJADA. Marrazki eta grabatuak. 25etik aurrera «Espainiako pintura Felipe II.aren garaian»

Pajarita Aretoan. 2tik 15era Antonio Diaz de Lezana. Pintura. 17tik 30era. JOSE ANTONIO ZERRAJERIA. Pintura/eskultura.

Aitor Urdangarin Galerian (Florida 24). 9ra arte. AGUSTIN HERNANDEZ. Pintura. 10tik 23ra. EVENCIO CORTINA. Akuarela. 24tik Uztailaren 7ra arte. LOLA IBARRONDO. Akuarela.

Canciller Ayala (La Senda) 13a arte 1.992.eko COAVN arkitektura sariak.

ANBOTO

 TABERNA - JATETXEA
EGUNEKO MENUA

 Kutxillera, 29 - Tfnoa. 25 00 93 -
01001 GASTEIZ

LARRUKI

 Larruaren
Artisautza

KANPOKO ARTISAUTZA, BITXIKERIAK

 Kutxillera, 26
Tfnoa: 28 38 86

01001-GASTEIZ

JATETXEA

 Kutxillera, 26 tfnoa: 28 81 47
•GASTEIZ



Aberasturi

«Chetti Anaiak» pailazoak.
Ekainak 26, 5etan
Gizarte-etxean

Agurain

Kontzertua: «A la fuga» eta
«Ironic Cancer Phobia»
Ekainak 19, Santa Maria
Plazan.

San Juan Jaiak

Amurrio

«Chetti Anaiak» pailazoak.
Ekainak 5, 8etan Alkinar.

Araia

Trasposos Dantza taldea.
Ekainak 5, 10,30etan
Frontoian

Arluzea

Izalde Trikitixa. Ekainak 19
6etan Plazan

Armiñon

Jesus Guridi abesbatza.
Ekainak 26, 7etan Elizan

Artziniega

Gasteizko Trikitixa Eskola.
Ekainak 13, eguerdiko
12,30etan Plazan

Beluntza

Biasteriko Joteroak.
Ekainak 27, eguerdiko ordu
batean Plazan

Beranturi (Berantevilla)

«Panta Rhei» Antzerki taldea
«Mari, Anbotoko dama»

Ekainak 12, 8etan Plazan.

Bilar (Elvillar)

«Gailur» musika herrikoia.
Ekainak 12, 8etan Elizan

Biloda (Villodas)

«Biznietos de Celedon»
Txaranga. Ekainak 26, 7etan
Plazan

Buradon Gatzaga

(Salinillas de Buradon)
Hitzaldia: Gasteiz Mendi
Taldea. Ekainak 12, 8etan
Gizarte-etxean.

Gasteizko Trikitixa Eskola
Ekainak 21, goizeko 11etan
Plazan.

Dulantzi

Ikuska txaranga. Ekainak 26
7,30etan Plazan.

Ekora (Yecora)

Izalde Trikitixa. Ekainak 5,
goizeko 11etan.
San Tirso Erromeria

Estibalitz

Samaniego Abesbatza.
Ekainak 5, 8etan Santutegian.
Samaniego musika
gregorianoa.

Ekainak 19, 8etan
Santutegian

Gopegi

Hitzaldia: Gasteiz mendi
taldea. Ekainak 6, eguerdiko
ordu batean Bengolarra
aretoan.

Araiako musika-banda.

Ekainak 20, eguerdiko
1,30etan Elizan.

Kanpetzu Argantzun

(Lapuebla de Arganzon)
Udaberria Eskolania -
Cantabile gera

Ekainak 19, 8etan Elizan.

Lantziegoko musika-banda.

Ekainak 26, 8etan Plazan.

Kripan

Biasteriko Joteroak.
Ekainak 6, 7etan Plazan

Langraiz



Lagunartean Abesbatza.
Ekainak 12, 8etan Elizan
Magia eta ilusionismoa.
Ekainak 19, 12etan
Jose Migel de Barandiaran
Eskolan.

Laudio

«Ezberdinak» gaiteroak
Ekainak 5, goizeko 11etan
Plazan.

Gitarra kontzertua: Roberto
Ugarte eta Jabier Antoñana.
Ekainak 11, 8etan Elizan.

Legutio

Samaniego Antzerki-taldea.
«Tom Swayer» antzezlan.
Ekainak 18, arratsaldeko
6etan eskolan

Leza

Hitzaldia: Gasteiz Mendi
Taldea. Ekainak 26, 8,30etan
Gizarte-etxean.

Lanteno (Lantero)

«Erletxo» Gaiteroak.
Ekainak 23, 9etan Plazan

Nafarrete (Navarrete)

Erletxo Gaiteroak Ekainak 27
eguerdiko ordu batean,
plazan.

Oion

Traste Antzerki Taldea
«El Animador». Ekainak 17,
5etan Kultur Etxean.

Ozaeta

Izalde Trikitixa. Ekainak 24
Arratsaldeko 4,30etan Gizarte
Etxean.

Pipaon

«Big Band-Gasteiz» Ekainak
5, 7,30etan Elizan.

Sagastieta (Manzanos)

Arabako Dantzarien Biltzarra.
Ekainak 27, eguerdiko 12etan
Plazan.

San Juan Jaiak

Samaniego

Laudioko San Roke Musika
Taldea. Ekainak 27,
eguerdiko 12,30etan Elizan.

Sarria

«Lagunak» Akordiolariak
Ekainak 19, 12 t'erdietan
Elizan.

Tuiu (Tuyo)

Korrusko Antzerki Taldea
«No pasen que venimos»
Ekainak 12, 7etan Plazan

Urrunaga

Magia eta ilusionismoa.
Ekainak 26, 5etan Plazan.

Villanueva de Oka

«Gailur» musika herrikoia.
Ekainak 27, eguerdiko ordu
batean Elizan.

Villaverde

Lantziegoko musika-banda.
Ekainak 27, eguerdiko ordu
batean. Plazan.

Zalduondo

Izalde Trikitixa
Ekainak 6, goizeko 11etan
Plazan

Zuhatzu Koartango

(Zuazo de Cuartango)
«Eguzki lore» Abesbatza.
Ekainak 13, eguerdiko 12etan
Elizan

Arabako Foru Aldundia
Kultura Saila.



**JATETXEA
ERRETEGIA**

OKELA ETA
ARRAIN
ERREAK

Chimbo Jatetxea

Cuchilleria, 57 • Tfnoa: 27 28 91
GASTEIZ

Cantòn de San Fco. Javier, 4 • Tfnoa: 27 68 33 • 01001 GASTEIZ-

BABA BELTZ NAHASKIA**Osagaiak (Sei pertsonarentzat)**

- Kilo t'erdi baba beltz
- Dzl. bat arraultze
- Gurina
- Gatza

Babak aletu ondoren lapiko batean jarri ur irakinetan eta gazitu. Egosita daudenean sartagin batera atera eta gurin pixka bat bota bertara.

Ontzi batean arraultzak eragin eta, gazitu ostean, baba beltzei gehitu. Nahasketa hau su motelean eduki noizean behin eraginez.

**MAKAILUA BIZKAITAR ERARA****Osagaiak**

- Kilo bat makailua zatitu
- Oliba olioia
- 6 piper sikua
- 2 tipula handi
- Porru zati bat
- Ogi sikua

Lurrezko ontzian tipula eta porru zatitua oliotan jarriko ditugu. Honi, uretan beratzen izaniko piper sikuaren mamia gaineratu ogiarekin batera. Saltsa hau txinotik pasatu eta gorde egingo dugu.

Makailua irinetan pasatu eta frijitu pixka bat. Lurrezko beste ontzi batean makailu hau oliotan jarri eta eragin jelatina atera arte. Olioia sendotzen denean lehen gordetako saltsa gainetik botako diogu. Mahaira atera aurretik su motelean izango dugu minutu batzuk.

ARROZ TARTA**Osagaiak**

- 3 arraultze
- 125 gr. gurina
- Edalontzi bete azukre
- Edalontzi bete irin
- 3 edalontzi esne

Osagai guztiak ondo nahastu irabiagailuarekin. Labea berotu. Behin berotu ondoren 150 gradutan jarri ia egin arte. Orduan 200 gradutara igoko dugu tarta guztiz egin arte

*Bacalao Giraldo*

- Egunero makailu gesaldua •Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN**«Kalitatea eta erosotasuna zure esku»**

Angulema, 2 - Tfnoa.: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfnoa.: 22 16 36 • Gorbea Merkatura - Zaldiaran - Gasteiz



GASTEIZKO UDALA: ZERBITZU ELEBIDUNAK



Ondokoetan badago euskaraz dakien langilerik

DEPARTAMENTUA	ZERBITZUA	HELBIDEA	TELEF.	FAXA
ZERBITZU OROKORRAK	ARGIBIDEAK ETA HARRERATEGIA	Dato, 11	16 11 88	16 15 93
LURRALDE ANTOLAKUNTZA ETA INGURUGIROA	HIRI-HOBAKUNTZA (HIRITARREKIKO HARREMANAK)	Dato, 11	16 13 01	16 15 93
KULTURA		Machete plaza, z/g	16 12 75	16 12 77
O.K.U.S./DEMSAC	ADMINISTRAZIO-ATALA (OMIC)	Done Bikendi aldapa, z/g	16 12 40	16 12 51
HERRI-JARDUERA ETA LAN HARREMANETARAKO SAILA	EUSKARA	Espainia plaza, z/g	16 15 22	13 09 65
GIZARTE ONGIZATEA	ADMINISTRAZIO-ATALA	Espainia plaza, z/g	16 13 60	16 13 63
INFORMATIKA		Vera-Fajardo margolaria, 5	16 14 13	16 16 00
HEZKUNTZA	ARANBIZKARRAKO HAUR ESKOLA	José P. Ullibarri, z/g	28 16 35	
	EL PILARREKO HAUR ESKOLA	Caracas, 6	22 94 99	
	F.J. LANDABURU HAUR ESKOLA	F.J. Landaburu, z/g	28 35 45	
	HAURTZARO HAUR ESKOLA	Santa Maria kantoia, z/g	14 34 33	
	IZARRA-LA ESTRELLA HAUR ESKOLA	Astronomoak, z/g	28 44 95	
	OLARIZUKO HAUR ESKOLA	Dantzari plaza, 6	27 28 95	
	TXIMELETA HAUR ESKOLA	Ricardo Sacristán, z/g	22 46 34	
	SANTA LUZIAKO HAUR ESKOLA	Federico Baraibar, 17	28 82 25	
	TXAGORRITXUKO HAUR ESKOLA	Gasteiz hiribidea, 61	22 95 49	
	ZARAMAGAKO HAUR ESKOLA	Nafarroako erreg., 16-B	28 94 49	



AYUNTAMIENTO
DE
**VITORIA
GASTEIZ**
U D A L A



Horiek, agian, ez dute
Euskal Hiztegi
Entziklopedikoaren
beharrik,


eta zuk?

- Lehenengo Euskal Hiztegi Entziklopedikoa.
- 10.000 euskaldun hitzarturik obra honetan harpidetzaren bitartez.

Super Lehiaketa!

Geu Gasteiz-ek lehen euskal Hiztegi Entziklopedikoa zozketatuko du bere irakurleen artean. Hamar liburukik osatzen duten hiztegi honek 100.000 pta inguru balio du.

Sari handi honen zozketan parte hartzeko, galderari zuzen erantzun eta helbide honetara bidal ezazu:

 **GEU GASTEIZ**


Posta kutxa: 1691

GASTEIZ

Hemen hilabete honetako galdera:

- **Zein urtetan sortu zen "Ez Dok Amairu" euskal kantari taldea?**

Zozketa uztailean egingo da gure egoitzan. Zorte on!



- Obra honi buruz **informazio gehiago** jaso nahi nuke, bestelako konpromezurik gabe.

Izen abizenak

Helbidea

Herria/Localidad P.K.

Lanbidea

Tel.

· Moztu eta beheko helbidera bidal ezazu.

LUR argitaletxea • Usandizaga kalea, 17 • 20.001 - DONOSTIA